

Hamar urtez hamaika puska eginda utzi eta joan dira sobietarrak

Afganistan: hasi da Kabulgo setioa

Hiriaren inguruan trumoi hodeiak metatzen ari dira eta Kabuldik mundu guztiko ordezkaritza diplomatikoak ateratzen hasi dira bata bestearen ondotik. Ez zaio irtenbide garbirik ikusten dagoeneko milioia eta berrehun mila lagun hil dituen Afganistango gerrari. Bote-reak egoera nola-hala kontrolatzeko egindako saioek porrot egin dute beren lerro funtsezkoenetan, eta mujahidinek ere, barne zatiketak direla medio, ez dute alternatiba baterakoirik erreusitu. Zatiketa horiek eta Pakistango zerbitzuen injerentziek zitekeen transizio bakesua galerazi dute. Sobietarren azkeneko soldadua irten eta gero, zer?, galdetzen du munduak hara begira izuturik.

Zeren beldur ote zen Shah Shodja, Kabulgo bere gaztelutik, 1842ko ilbeltzeko goiz izozgarri batean, bera tro-nuan iminitako ingeles armadaren hamasei mila gizonak hiriburutik ateratzen ikusitakoan? Bere amaieraren beldur, seguruenera. Hiru hilabete beluago, apirilean garbitu zuten hura. Zer pentsatzen ote du egunotan Najib presidenteak, bederatzi urtez bere erregimenari eusten egondako sobietarren azkeneko tropak joan badoazela ikusten duelarik?...

Ziaren testamentua

1988ko abuztuan abioi istripu miste-riotsu batean hil baino apur bat lehen-txeago, Zia Ul Haq Pakistango presi-denteak sobietarrak joan eta segidan komunistak jausiko zirela iragarri zuen:

«Kabulgo bataila handiaren ondoren, aste batzuk edo gehienaz ere hilabete batzuren ondoren eroriko dira. Mujahidinei ahalbide guztiez lagunduko diegu». Gerra horretan kolkoraino inplikaturik ikusten zuen bere burua Ziak, eta 1979 baino lehenagoko egoerara («so-bietar eta indiar eraginak eta afganiar-rrer gure lurrikiko erreibindikapenak markatu» omen zuten egoera hartara) itzultzerik ez zutela permitituko, baieztatzen zuen.

Hiri handien kontrolagatik eman dira azken hilabetetako batailarik gogorre-nak. Gubernuko armadak eutsi egiten dio, baina hiri asko setio egoera eramangaitz batean bizi dira egun. Pakis-tan, Ziaren erabaketatik aldendu gabe, erabat sartu da jokoan. Jarrerren bigun-te bat eskatzen zuten sektore zibilei ja-

Zatiketek galerazen dute gerrila talde inguruan batu daitezen.

ramonik egin gaberik, Islamabadeko In-terservices Intelligence Directorate dela-koak bere horretan jarraitu du, Benazir Bhutto ailegatu eta gero. Bhuttok aitortu duenez, integristek «ez dute erregi-men egonkor bat ipintzeko adinako he-rrri euskarririk»; baina praktikan —ezer hobeagoren ezean, beharbada— horre-tara jarri dira buru-belarri. Horri buruz Estatu Batuen joera dehisiboa izango, izaten ari da.

EEBBak, azken aldi honetan, Hek-matyiar-en Hezb-Islami gerrila alderdia ahultzen ahalegindu dira, «fundamenta-listegi», amerikarren kontrakoegi dire-lakoan, eta aldiz Rabani-ren Jamiat-Islami alderdia bultzatu dute; Rabani hori dateke Pakistanen kandidato, Kabulgo boterearen buruzagitzarako.